

# Bilbo Samurai





**Fernando Morillo** | (Azpeitia, 1974). 1999. urtean Donostia Hiria saria irabazi zuen *Gudaoste ametsak* ipuinarekin eta, geroztik, beste hainbat sari eskuratu ditu bere ibilbide literarioan zehar, besteak beste: Euskadi saria, Igartza Literatur Beka eta Augustin Zubikarai saria (*ex aequo*). Gazte literatura landu du batez ere (*Sexu egunsentiak*), baina gainontzeko generoak ere sakon jorratu ditu: nobela (*Zure arimaren truke*), saiakera (*Erraldoi herrena*), biografia (*Leonardo*) edo eta itzulpenak (*Eragon*).

Fernando Morillo

# Bilbo Samurai



LEHENENGO EDIZIOA  
Tafalla, 2010eko otsaila

© Txalapartak EDIZIO HONENA  
© Fernando Morillok OBRARENA

Editorial Txalaparta e.m.l.  
Navaz y Vides 1-2  
78. Posta kutxa  
31300 Tafalla NAFARROA  
Tel. 948 70 39 34  
Fax 948 70 40 72  
txalaparta@txalaparta.com  
www.txalaparta.com



AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA  
Esteban Montorio

MAKETAZIOA  
Monti

INPRIMAKETA  
RGM  
Igeltzera poligonoa, 1 bis, A1 pab.  
48610 Urduliz - Bizkaia

ISBN  
978-84-8136-580-1  
LEGE GORDAILUA  
BI. 509-10



*Eta ez daukagun arren orain  
garai batean zeru-lurrak mugitzen zituen  
indar hura, garena gara:  
antzeko adoredun bihotz heroikoak, denborak  
eta patuak makalduak, baina gogo sendokoak  
jarduteko, bila ibiltzeko, aurkitzeko eta inoiz ez errenditzeko.*

ALFRED TENNYSON

I

Eroen eta basatien ordua

BASOKO ADARRAK GERO ETA TRINKOAGOAK ZIREN, ez zen erraza haien artetik ibiltzea. Bilbo Samuraik sega handi bat zeraman bizkarrean zintzilik, eta borroka-makila luze bat ezker eskuan. Hala ere, katu aditu baten abileziaz egiten zuen aurrera. Erritmoa moteldu gabe, hobeto kokatu zuen sega.

Zuhaitzen goiko alderantz begiratu zuen Bilbok. Kopetako ilea baztertu zuen, hobeto ikusteko. Zuhaitz beltzak, hosto beltzak. Antzinako pagoak ziruditen, Hondamendi-egunaren aurrekoak. Baina zuhaitz haiek askoz ere altuagoak ziren garai batekoak baino, eta adar amaiezinak eta fin-finak zeuzkaten. Bizirik irten ziren beste guztiek egindako gauza bera egin behar izan zuten basoek ere: egokitu edo hil.

—Nekatuta al zaude? —galdetu zuen Bilbok burua itzulita. Irudi baxuago batek jarraitzen zion. Mutikoa zirudien. Gizakumea. Ez. Ez guztiz—. Xuri? Apur batez geratzea nahi al duzu?

—Ondo nago —erantzun zion gazteak. Ilargi betea bezain zuria zeukan aurpegia. Hortik, beharbada, Xuri izena—. Beste pixka batean segi dezaket.

Bilbok irribarre egin zuen bere baitarako. Xuri leher eginda zegoen, baina ez zuen besterik gabe amore emango. Lurrera zerraldo erori arte segituko zukeen, hala eskatu izan balio. Bilbok Lander gogoratu zuen, gaztearen aita. Antz handia zuten aita-seekek. Hobeto elkar ezagutzerik izan balute!

—Lo egiteko leku bat bilatuko dugu —erabaki zuen Bilbok.

—Ondo nago. Benetan.

—Ordu asko daramatzagu martxan. Atsedean hartu behar dugu.

Bilbok pausoa lasaitu zuen, baina gelditu gabe. Gaztea hurbildu egin zitzaion.

—Bilbo.

—Esan.

—Beti esaten didazu kasu egin behar zaiola barruko ahotsak dioenari.

—Zer dio zure ahotsak?

Xuri une batez isildu zen, hitzen bila edo.

—Ez zait gustatu —azaldu zuen, azkenean.

Bilbok aurrera jarraitu zuen, arduraz, ingurua ahalik eta ondoen arakutzen. Zenbait adar baztertu zituen eskuan zeraman makila luzearekin.

—Zer ez zaizu gustatu? —galdetu zuen gizonak—. Itxaron, Xuri. Etorri hemendik. Nire atzetik.

—Ehiztaria. Ez zait gustatu ehiztaria.

—Hortxe aurrean geratuko gara. Leku ona dirudi —gizonak segundo pare bat hartu zuen gaztearen aur-



pegi zurbila aztertzeke. Kezka irakurri zuen Xuriren begietan-. Ibaiaren ertzean zegoena?

—Egun osoan ikusi dugun pertsona bakarra da eta! Nor, bestela? —ihardetsi zion Xurik, Bilbo adarra jotzen ari ote zitzaion ezin asmatu—. Ez zait gustatu haren begirada.

—Zergatik?

Gaztea isilik geratu zen puska batean, hausnarrean bezala.

—Ez dakit —esan zuen gero—. Edo, hobeto esanda, badakidala uste dut, baina ezingo nuke azaldu zergatik. Ez egin barre, Bilbo. Ez egin barre. Serio ari naiz.

—Ez dut barrerik egin. Inoiz ez nizuke barrerik egingo. Entzun? Inoiz ez. Sartu hori ondo buruan, Xuri. Irri egin dut. Ez da gauza bera. Eta ahotsari dagokionez... Hitz egin dugu horretaz. Azal dezakezun baino gehiago jakitea. Sena. Zurea bikaina da. Aintzat hartu. Askotan asmatzen du.

—Zuk ere ikusi al duzu? —galdetu zuen gazteak.

—Zer?

—Haren begiradak zeukan distira.

—Zer zioen haren begiradak?

—Kalkulatu egiten zuen. Harrapakinaren zain dagoen otso baten begirada zuen.

—Harrapakina izatearen beldur zara? —galdetu zion Bilbok.

—Ez.

—Ez?

—Beno, pixka bat. Zurekin gutxiago.

—Beldur izatea ez da txarra. Erne egon behar duzula oroitarazten dizu beldurrak. Prestatzen jarraitu behar duzula.

—Prestatzen.

—Beldurrik gabe, erraza da bizirik zaudela ahaztea. Beldurrik gabe, litekeena da merezi duen guztia ere ahaztea. Izan ere, esango nuke zibilizazioak, neurri batean, beldurra galdua zuela. Bizirik zela ahaztu zuen. Eta benetan zerk merezi zuen ere bai.

—Horregatik hondoratu zen?

—Beharbada. Auskalo.

—Orduan, beldurra izan behar dut –esan zuen Xurik.

—Pixka bat izan dezakezu. Baina ez ahaztu zure alboan nagoela.

—Eta ni zurean –esan zion gazteak berehala.

—Ikusten? Beldur gutxiago dut orain.

Xurik barre egin zuen:

—Txotxoloa.

Bilbok aurreko muino bat seinalatu zion.

—Hortxe kanpatuko dugu, tontortxo horren azpian. Goazen.

—EZ GENUKE SURIK PIZTU BEHARKO —esan zuen Xurik—. Ez hemen.

Bilbok adar mordo bat zeukan pilatuta aurrean. Haietariko lodiena hartu, eta su txikiaren gainean jarri zuen.

—Hotz dago —erantzun zion Bilbok.

—Zu ez zara hotz —erantzun zion Xurik—. Inoiz ez zara. Nigatik egiten duzu.

—Biongatik egiten dut. Zatoz, eseri suaren aurrean.

—Bidelapurren gunek batetik hurbil gaude. Eta ikusten bagaituzte? Ez al duzu esaten beti adi eta kontuz ibili behar dugula?

—Adi gaude, eta adi egongo gara. Baina gaur sua piztuta utziko dugu. Jarri manta gainean.

Lurrean etzan ziren, muinoaren eta suaren artean babestuta. Manta saretu lodi bana ipini zuten gainean. Xurik zabal-zabalik zeuzkan begiak.

—Bilbo —deitu zion gizonari—. Bilbo.

—Egin lo.

—Nola gertatu zen? Nola hondoratu zen guztia?

Bilbok hasperen egin zuen. Xurik adi-adi begiratzzen zion, ahoa erdi irekita eta kizkur horiak kopetaren aurrean kiribilduta.

—Berriro?

—Berriro. Mesedez –erregutu zion gazteak–. Azaletik bakarrik.

—Esan dizut. Hamaika aldiz kontatu dizut. Oso gaztea nintzen. Zu orain zaren baino gazteagoa.

—Baina hala ere gogoratzen duzu. Hiriak ikusi zenuen. Eta zinema, eta janariz beteriko denda erraldoiak. Eta txokolatea, eta parkeak, eta errepideak. Eta... lagunak.

—Ikusi nituen.

—Eta dena erori zen. Nola?

—Ez dakit. Eta ez dakit norbaitek jakingo duen. Beharbada, inork ezagutzen ez zuen bat-bateko gerraren bat izan zen, gertakari naturalen bat, txiripa kosmiko madarikaturen bat. Egun batean, dena normala zen. Betikoa. Ohikoa. Hurrengoan, hainbat itzalaldi egon ziren leku ugaritan. Kexak izan ziren, baina ez zen benetako alarmarik egon, inork ez baitzuen espero hura behin-behineko matxuraren bat baino gehiago izaterik. Handik oso gutxira, industria asko geratu egin ziren, denerariko gailuak, ur-ponpak... Eta, ez bat eta ez bi, dena azkartu egin zen. Konturatzerako, ez zegoen gasolinarik. Janaria falta zen. Internet, irratia eta telebista ez zebiltzan. Izu-ikara itzela barreiatu zen bazterrik bazter, eta luze gabe gaixotasunak etorri ziren, asaldurak, benetako gosea... Zibilizazioaren geruzak begi-kliska bat

baino ez zuen iraun. Bi, hiru aste? Eta infernua ailegatu zen. Edo errealitaterik errealena, nahiago duzuna.

—Zer egin zuen jendeak?

Bilbok lakar egin zuen barre.

—Hil! Hori egin zuen jendeak.

—Zu bizirik zaude.

—Bizirik nago –Bilbok ezpainak estutu zituen–.

Ekaitzek salbatu ninduen.

—Zure anaiak.

—Ni baino hamabi urte zaharragoa zen. Norbait banaiz, zerbait ikasi badut, hari esker izan da.

—Bi zineten?

—Hiru. Arreba bat geneukan: Aizpea. Hondamendiaren ondorengo hilabeteetan hil zen. Gurasoak bezala. Gehienak bezala.

—Ez nekien. Sentitzen dut. Nolakoa zen Ekaitz?

Bilboren begiak piztu egin ziren.

—Ekaitz. Ekaitz bestelakoa zen. Umetatik. Ez zen sekula santan egokitu inolako taldetara, inolako gizartetara. Arima askea zuen, eta, zibilizazio hartan, horiek hitz politak izanagatik ere, ez zegoen batere ondo ikusia. Ekaitz mugarik gabeko lehoi bat zen, kaiola txikiegi batean barruratua. Haur txiki eta bihurri bat bezain oldarkorra zen, eta monje gerlari bat bezain diziplinatua. Burdin gori bat bezain kartsua, eta gero hirien kanpoaldeetan pilatu ziren gorpuak bezain hotza.

—Sua eta izotza.

—Kontraste hutsa. Behin kontatu zidanez, ederki aztoratu zituen bera bideratzen-edo saiatu ziren zenbait psikologo. Anaiaren barru-arrezifeen aurka jo-

tzen zuten haien hitz eta saio guztiek. Hura ironia: dena hondoratu eta jende gehienak patuari amore eman zionean, anaiak leku bat aurkitu zuen itsumustuan. Eroen eta basatien ordua iritsi zen.

—Zure anaia zer zen, eroa ala basatia?

Bilbok segundo batzuk hartu zituen erantzuteko.

—Ziur asko, biak. Gerlari hutsa zen. Beti izan zen. Eta Hondamendiaren ondoren, bere burua barruan bilatzea besterik ez zitzaion geratu. Eta aurkitu. Aurretik ezarritako ordena barren-barrenetik lehertu zen. Beste arau batzuk asmatzeko garaia zen. Garai amesgarri eta aztoratua. Ekaitzentzat primerakoa.

Xuri zenbait minutuz egon zen txintik atera gabe. Gaztea lokarturik zegoela uste izan zuen Bilbok. Moxila ireki, eta Hondamendiaren aurreko erlikia bat atera zuen: agenda elektronikoa. Bere liburutegi pertsonala zen. Urruneko munduetako historiak eta istorioak. Guztiak fantastikoak, errealitatea erreala zeneke ezer ez baitzen jadanik erreala. Lehengo literatura oro zen, errealitateak agindurik, fantastikoa.

—Nire aitaren laguna zinen, ezta? —galdetu zion Xurik orduan.

—Oraindik esna zaude.

—Ez naiz logura. Nolakoa zen aita?

—Lo egin behar duzu.

—Faborez. Nolakoa zen aita?

—Nolakoa zen Lander... Zure aita gizon ona zen. Gogorra. Samurra. Barre egitea gustatzen zitzaion, ahal zuen guztietan. Gogoko nuen.

—Eta lagunak zineten.

—Bai.

—Horregatik naramazu zurekin?

Xuriren tonuak garbi utzi zion Bilbori arretaz ibili behar zuela, gaztea minduko ez bazuen.

—Ez horregatik bakarrik —esan zuen Bilbok, tentuz.

—Zure hitza eman zenion. Zaindu egingo ninduzula agindu zenion.

—Bai.

—Nahiz eta ni zama izan.

—Ez zara...

—Gure artean zintzoak izango ginela esan zidan —eten zuen Xurik.

Bilbok zerua aztertu zuen. Hondamendi-egunetik aurrera, gutxitan ikusten ziren izarrak. Zerua hautsez eta laino beltzez estalita zegoen oro har, eta oskarbi-uneek zikinean egindako urradurak ziruditen, eta gero eta ezohikoagoak ziren.

—Zama zara eta ez zara, Xuri. Baina ez nahastu gauzak. Neu ere zama nintzen. Zama handia.

—Anaiarentzat?

—Anaiak lagundu egin zidan. Zer izango nintzateke Ekaitz aldamenean izan ez banu? Haren eredua eta euskarria izan ez banu? Garena, askotan, bidean aurkitzen ditugunen araberakoa da. Zorte kontua baino ez da. Oso moldagarriak gara, Xuri. Eta forma ematen diguten eskuek osa dezakete izango garen guztia. Guztia! Nik egundoko zorte ona izan nuen. Anaiak eusten irakatsi zidan. Egin egin ninduen. Hona iristen lagundu zidan. Eta nik zuri lagunduko dizut.

—Hitzeman zenuelako.

—Eta nahi dudalako. Neurri batean, ni nintzena zara. Zu zainduta, nire zatirik barrukoena ere zain-

duko banu bezala da. Berriro diotsut, Xuri: zaindu egin nahi zaitut. Nahi. Ulertzen? Nik nahi dut. Ez da kanpotik etorritako zama.

—Nahi —errepikatu zuen Xurik, bere kolkorako.

Iluntasuna erabatekoa zen. Gaua gauekoentzat zen atzera, behiala bezala. Ametsa eta errealitatea bat zirenekoan bezala. Beste behin. Suaren inguruan itzalen dantza zebilen. Urkatu ezineko zalantza, ezezagunaren magia distiratsua, bizitzaren oihartzuna. Eta errespetuaren eta konfiantzaren epela.

—Zuk lagun gehiago izan dituzu —esan zuen Xurik—. Nire aita. Zure anaia.

—Hilda daude.

—Gehiago dituzu.

—Baditut lagun batzuk.

—Nik lagun bat izan nahiko nuke.

Bilbok burua goratu zuen, ez batere eroso.

—Ni nauzu.

—Ez da gauza bera, Bilbo. Ni mutikoa naiz. Zu gizona. Eta, gainera, ni ez naiz... Ni ez naiz...

—Laguna nauzu, Xuri. Eta ahaztu bestea.

—Ahaztu? Nahi bai! Nola ahaztuko dut ba! Nahikoa arropa erantztea, eta hor ikusten dut behin eta berriro. Zaila ahaztea. Ile horiek guztiak, azal zuri-zuria...

—Sarritan, guztiok izan nahi genuke ez garen zerbait. Edo ez garela uste dugun zerbait. Ez dut inor ezagutu bere buruarekin guztiz pozik dagoenik.

Miauka bat entzun zen orduan eta biak isildu ziren berehala.



—Katu basati bat –esan zion Xurik, belarriak luze-luze.

Behar baino hurbilago ematen zuen soinuak. Bilbok arretea handiz entzun zuen. Azken urteetan, aspaldiko etxe-katuak izugarri hazi ziren, eta indartu, eta ankertu. Izan zirenera itzultzen ari ziren, infernuitik iheska zebilen santu bat baino azkarrago. Hondamendiak prozesu hezigabe guztiak azeleratu zituen, nonbait.

—Suak urrun edukiko du –iritzi zion Bilbok—. Oraingoz ez da gehiago hurbilduko.

—Beharbada, katu hori gustura egongo da bere buruarekin. Beharbada, ezta hura ere. Baina ez duzu ukatuko batzuek zailagoa dutela –jarraitu zuen Xurik—. Nik normalagoa izan nahi nuke. Gehienen modukoa, behintzat. Zuk ez zenuke nahi?

—Normala bazina, zuk diozun moduan, beharbada orain daukazun bizitza irrikatuko zenuke. Zure bidea ez da samurra. Nirea ez da samurra. Norena da, ordea? Ez nahastu, Xuri. Orokortzea sinplekeria arriskutsua da. Eta alferrikakoa. Orain itxi begiak. Lo egin behar duzu. Bihar goiz jaikiko gara.

—Bihar. Etzi. Etzidamu...

—Eroso jarri eta begiak itxi. Orain bai, edo haserretu egingo naiz.

Bilbok agenda elektronikoa atera, eta irakurri egin zuen. Hiri amaigabeei buruzko istorioak, bizimodu laisaiko pertsonen buruzkoak, eta maitasun miresgarriei buruzkoak. Buruan bueltaka zeukan zerbait, eta ezin zuen gogoan behar bezala bildu. Agenda alboan utzi eta zeruko laino beltzei begira egon zen berriro.

Nora zihoan dena? Aurreko mundua hilda, eta zertorrena oraindik jaiotzeke.

Bilbok Xuriren kizkurak laztandu zituen samurtasunez. Lagun baten semea. Jadanik bere laguna. Ai, zerbait beldurgarria bihurtzen ari zen gaztea. Xurik berak uste zuen baino beldurgarriagoa. Eta Bilbok ez zekien gauza izango ote zen gazteari gero eta gehiagotan irten nahi zitzaion barru-indar hilgarri hura kontrolatzen irakasteko.

Gizaki-bikote batengandik sortutako munstroa.

Piztia.

Kumea.

Geldi. Zerbait praktikoagoa pentsatzen saiatu zen, une hartan antzua baitzen harekin guztiarekin bueltak aritzea. Pila kargatu batzuk behar zituen agendarako. Gero eta nekezagoa zen bateriak edo pilak eskuratzea, jende asko baitzebilen haien atzetik. Garai bateko musika-tresna txikiak, askotariko gailutxo elektronikoak... Ihesbide laburrak eta ñimiñoak, baina, askorentzat, halabeharrezko aterpe.

—Bilbo.

—Xuri! Itxi begiak.

—Egunen batean lagun bat izango dut?

—Baduzu.

—Ulertu didazu.

—Egunen batean lagun bat baino gehiago izango duzu.

—Agintzen al didazu?

—Ezin dizut hori agindu.

—Badakit.

—Baina izango duzu.

- Lagun bat –murmurikatu zuen Xurik.
- Bat baino gehiago. Itxi begiak. Lo egin.



—XURI! ESNATU. GORA!

Xurik begiak erdi ireki zituen. Bilbo aurrean zeukan, guztiz jantzita, borrokarako jarreran, eta makila luzea eskuetan. Goizeko entrenamendurako gertu.

—Dagoeneko? —kexatu zen Xuri. Besoak luzatu zituen, nagi. Manta gainetik kendu eta aharrausi azkar bat egin zuen.

—Gora, Xuri. Bizkor.

—Eguzkia ez da atera oraindik!

—Eguzkia laino beltzen atzean sortuko da gaur ere. Beraz, ez da alde handirik egongo. Ea, hartu zure makila edo eman egingo dizut. Zeuk ikusi. Mugitu!

Xuri astiro-astiro jaiki zen, ur azpian higitzen ariko balitz bezala, gorputz osoko giharrei iratzartzeko eskatzen zien bitartean. Prestatu. Prestatu. Prestatu! Begiak indarrez itxi eta ireki zituen zenbait aldiz. Makurtu, bere luzera bereko makilari heldu, arnasa sakon hartu... eta ziztuan eta ezustean egin zuen jauzi, Bilbori eraso egiteko. Gizonak albora egin zuen berehala. Zailtasunik gabe geratu zuen lehen kolpea.

—Oso ondo –azaldu zion Bilbok–. Oso ondo! Erdi esnatuta baino ez bazaude ere, gorputza ohitu behar duzu, defendatzen eta eraso egiten. Berrero.

Xurik goitik eraso egiteko keinua egin zuen, baina makurtu eta behetik jo zuen arrapaladan. Bilbok azken unean blokeatu zuen mugimendua.

—Primeran. Bikain! –balioetsi zuen Bilbok–. Gero eta hobeto aritzen zara. Berrero.

Gazteak behin eta berriz ekin zion. Esmatzen zihoran heinean, Xuriren mugimenduak bizkortuz joan ziren. Gezi menderakaitz bat zen, amildegi guztiak zeharkatu nahian. Odolezko meteoro geraezin bat, zeru beltza alderik alde gorritz tarrantatu nahian. Edozein modutan, ez zuen lortu Bilbo ukitzerik. Ezta hurrik eman ere.

—Mugitu. Mugitu –errepikatu zion Bilbok–. Atzera, aurrera, alboetara. Salto. Saihestu. Kontzentratu! Gorputza zurekin joango da. Gogoa bildu eta gidatu. Horrela. Kolpe. Hanketara eta burura. Besoak, lepoa, eskumuturrak. Kontzentratu. Kontzentratu! Ez da nekerik. Ez da minik. Zu bakarrik zaude. Zure gogoa. Kontzentratu. Eta gidatu. Gidatu beti. Geratu gabe. Segi. Segi!

Ordu erdiz jardun zuten horrela, bizitasun handiz, etenik gabe.

—Nahikoa –erabaki zuen Bilbok–. Oso ondo aritu zara. Orain, meditazio labur bat egin. Gero zoaz errekatxora eta garbitu pixka bat, nik neurea amaitzen dudan bitartean.

Xuri lurrean eseri zen. Begiak itxi zituen. Meditatu egin behar zuen, minutu bakar batez bazen ere.

Meditatzea ez zen erlaxatzea. Ez zuen zerikusirik. Borroka isilean jarraitzea zen meditatzea. Buruari gidari zarela erakustea. Gidari.

—Burua gidatu behar dut —xuxurlatu zuen Xurik—. Gidatu.

Ondoren, biluzi eta uretan sartu zen. Uste baino hotzago zegoen, baina ez zen kexatu. Ohitu egin behar zuen.

Errekatik irten, jantzi eta Bilbori begira egon zen gaztea. Gizonak makila luzea utzi eta sega hartu zuen. Segak distira gupidagabea egiten zuen mugitzean. Bilboren arma kutuna zen. Sega zorrotz eta lasterra. Xurik liluraz ikusi zuen nola higitzen zen Bilbo, nola biratzen zen sekulako abiadaz, nola mozten zuen segak airea. Di-da, kolpe atzera, albora, bira bat, beste bira bat, salto. Moztu, ukabilkada, kolpea, bira, ostikoa, salto, moztu. Ez zen inoiz nekatzen. Ez zuen inoiz begirada galtzen. Bere baitan zen erabat. Edo hala ematen zuen.

Beste ordu erdi bat horrela eman eta gero, Bilbo geratu egin zen.

—Zergatik entrenatzen zara horrela? —galdetu zion Xurik.

—Zer esan nahi duzu?

—Zergatik hain indartsu, hain... etengabe?

—Hobetzeko.

—Zertarako, ordea? Ezin da zu baino hoberik egon!

Bilboren begirada ilundu egin zen.

—Egon dira —esan zuen.

Bilbok bizkarra eman zion Xuriri. Sega eta makila hartu, eta erre kara hurbildu zen. Xurik berehala

antzean zuen ez zuela hari hartatik tira behar. Ez artean, behintzat.

—Sekulako abiadura daukazu —esan zion hala ere gazteak—. Nola egiten duzu? Nola lortzen duzu?

—Zu azkarragoa zara, Xuri.

—Baina nirea berezkoa da. Ez dut nik landu. Gainera, batzuetan azkarragoa banaiz ere, nik ezin dut inola ere makila bat horrela erabili, hain bizi. Eta are gutxiago sega. Ezingo nuke inola ere kontrolatu.

—Praktika besterik ez da. Egunen batean nik baino azkarrago egingo duzu —Bilbok erreka ertzean utzi zituen makila eta sega—. Zaindu beste traste guztiak, Xuri. Bainua hartuko dut.

—Euria hasiko du segituan —esan zion gazteak—. Hara, hasi du.

Bilbok ez zion erantzun. Biluzi eta errekan sartu zen. Uraren erdian eseri eta begiak itxi zituen. Sentitzeko. Bizirik zegoela, eta bizirik jarraitu nahi zuela gogoratzeko. Urak azala laztantzen zion. Gogoia biltzen laguntzen zion. Indarra. «Ez pentsatu inoiz behar bezain indartsua zarenik, behar bezain bizirik zaudenik», errepikatzen zion Ekaitzek. «Egunero prestatzen ez bazara, egunero bizi ez bazara, ohartu aurretik erori egingo zara, eta ez duzu jakingo nola gertatu den, eta ezingo zara jaiki. Orduan ez duzu jaikitzerik mereziko. Ez duzu bizirik sentitzerik mereziko». Lagunak, barrea, jolas-sena. Euskarriak. Indarra.

Euri tantak ugaritu egin ziren eta aurpegia busti zioten. Trumoi handiak entzun ziren. Ez zen batere ezohikoa. Hondamendiaren ondoren, ekaitzak ugaltu eta deabrutu egin ziren. Hasieran, gaintitu beha-



rreko koska madarikatu bat gehiago zen. Ordurako, ia eginda zeuden hartara. Bestelakoak ziren koskak.

—Bilbo, Bilbo! —deitu zion Xurik.

Xuriren belarriak mugitu egin ziren. Zerbait entzun zuen euri tanten zar-zar hotsaren azpian.

—Bilbo —errepikatu zuen gazteak—. Zarata bat.

Bilbok ondo ezagutzen zituen Xuriren entzumen eta sena. Ohiko gizakienak baino askoz zorrotzagoak ziren. Horregatik, berehala zabaldu zituen begiak. Zutitu eta esku bat makila alderantz luzatu zuen. Besteaz, bizkarrean eskegi zuen sega. Errekatik atera zen. Armak zituen jantzi bakar.

—Zer da, Xuri? Zer entzun duzu? —galdetu zion gazteari.

—Baten bat dator.

—Susmo txarra hartzen diozu?

—Lasterka dator, baina pauso isilean. Isil ostuka bezala.

—Hori ez da ona. Hurbil da?

—Bai. Barkatu, tantek ez didate lehenago entzuten utzi.

—Nondik?

Xurik iparraldera seinalatu zuen, basoa trinkotu egiten zen alde baterantz.

—Handik —adierazi zuen. Kopeta zimurtu zuen berehala. Kontrako aldea ere seinalatu zuen—. Eta handik.

—Bi dira?

Xuriren belarriak biziago mugitu ziren. Mutikoak begiak itxi zituen.

—Hiru. Ez, lau! —zenbatu zituen Xurik pauso-hotsak—. Lau datoz.

—Trebeak?

—Batek hankak herrestatzen ditu, baldar samar dabilela dirudi. Beste hirurak ez, azkarrak eta arinak dira. Badakite basoan mugitzen.

—Xuri, entzun –eskatu zion Bilbok–: igo berehala zuhaitz batera.

—Ez dago astirik.

—Xuri!

—Alferrik da, Bilbo. Hemen dira. Begira, hor dator bat.

—Zu ez mugitu, entzun? Xuri?

—Entzun dut. Ez naiz mugituko.

—Geldi-geldi.

—Zuhaitz bat gehiago izango naiz.

—Zerbait gaizki ateratzen bada...

—Ez da aterako.

—Gaizki ateratzen bada, ihes egin. Xuri? Erantzun! Xuri!

Gazteak ez zuen ahorik zabaldu. Ez zion denborarik eman, orduantxe hurbildu baitzen lehen ezezaguna. Oihal marroixka lakar batez jantzita zegoen, eta guztiz burusoila zen. Begiek distira egiten zioten, lasai eta seguru dagoenaren dir-dir harroz.

—Ongi etorri gurera! –esan zien burusoilak, irribarrez. Txalo batzuk jo zituen–. Bisitari gutxi izaten dugu, baina besoak zabalik hartuko zaituztegu. Oparitxoren baten truke, noski. Aita-semeak? Ondo, ondo. Familia galtzear dagoen garai hauetan, horrelakoak zaindu egin behar dira.

—Nor da lehena? –esan zuen Bilbok, ahots garbi eta ozen batez.

—Zer?

—Zuek gurea nahi duzue. Nik ez dizuet emango. Nor da lehena nire aurka egiten?

Ezkerreko zuhaitzetik beste gizon bat atera zen. Xurik eta Bilbok begirada labur bat gurutzatu zuten: aurreko egunean ikusitako ehiztaria.

—Ez duzu ulertu, gizona –esan zion Bilbori atera berriak–. Utzi itxurak. Ez duzu aukerarik. Eta aita batek, gainera, ez du arriskuan jarriko semea, ezta?

—Esan horko beste biei dauden lekutik irteteko –esan zien Bilbok–. Lau zarete. Lau baino ez.

Bi lapurrek harriduraz eta urduritasun apur batez begiratu zioten elkarri. Ehiztariak barre egin zuen.

—Gustatzen zait. Umore ona dauka! Baina entzun, gizona: hitz egiten ari ginen. Hitz egiten baino ez. Zuk aipatu duzu harago joatearen kontua. Gu lau gara, zuzen zabiltza. Gu lau eta zu bat. Edo bat eta erdi –Xuriri begiratu zion–. Edo gutxiago. Ez egin ton-takeriarik. Zuregana banan-banan joango garela uste al duzu?

—Nik banan-banan hilko zaituztet –aurpegiratu zien Bilbok. Aurreko bien gorpuzkera eta mugimenduak aztertzen ari zen. Non ziren indartsuen aurkitu nahi zuen, non ahulen.

Falta ziren bi bidelapurak eskuineko zuhaitzen artetik atera ziren. Bat emakumezkoa zen, argala eta luzea. Bestea, berriz, erraldoi hutsa. Ez zirudien oso argia, baina bai sasoikoa eta mardula. Zalantzarik gabe, hura zen traketsena.

—Tipo hau zoratuta zegok! –oihukatu zuen erraldoiak, barrez–. Potroak bistan ditik eta! Dedio. Nola-

koak gainera. Eta begiratu borra! –Berriro egin zuen barre, pozik eta ozen–. Gu lau gaituk, baina horrek arma handiagoa dik!

Laurek egin zuten barre. Emakumeak hitz egin zuen orduan:

—Laurak batera joaten bagara, hanka arteko hori guztia gure etxeko horman jarriko dugu, zure oroigarri. Eta gaztetxoa... gaztetxoa beharbada gurekin eramango dugu. Esklabo osasuntsuak ondo saltzen dira azoketan. Zuriagia, aukeran, baina indartsua ematen du.

Laurek egin zuten barre beste behin. Pauso bana eman zuten aurrera, ia aldi berean. Ondoren, aitzo bana atera, eta erakutsi egin zituzten. Onak ziren. Onak antzezten eta biktimak izutzen. Borroka fisikoa baino garrantzitsuagoa zen psikologikoa. Bazekiten. Ondo eginez gero, borrokatu beharrik ere ez zuten izango.

Bilbok begira jarraitzen zuen. Nola mugitzen ziren. Nor zen burua. Aske zeukan eskuarekin bizkarreko sega askatu, eta mugimendu azkar batez hartu zuen.

—Sega bat –esan zuen emakumeak, txundiduraren eta barrearen artean–. Sega batez borrokatuko al zara? Izan zaitez zentzuduna. Oraindik ez gara haserretu. Lasaitu zaitez, eman zuen poltsa eta dena ahaztuko dugu. Guk ez zaituztegu hil nahi. Zertarako? Nahikoa dugu diruarekin. Ez izan ergelak.

Gezur hutsa, jakina.

Egia zen gazteak saltzen zituztela azoka batzuetan. Eta lau haiek ez zioten uko egingo diru gehiago eskuratzeko aukera hari. Bilbok lauri begira jarraitzen zuen. Emakume argalak zirudien taldeko buru.

Erraldoiaren indarrak konfiantza ematen zien. Lehenbizi azaldu zenak, burusoilak, gihar finak eta biziak zeuzkan. Oso zitekeena zen borrokalari iaioa izatea.

—Sega hori berehala uzten ez baduzu –jarraitu zuen emakumeak–, gero lepoa moztu beharko dizut harekin. Beste zintzilikario batzuk moztu ondoren, jakina.

Bilbok irribarre txiki bat egin zuen, aiko-maiko zebiltzala irakurri baitzuen haien begietan. Nabarmen, lau haiek borroka egitera ohituta zeuden. Baina makilen aurka. Aiztoen eta ezpaten aurka. Besoen aurka. Segak nahasirik zeuzkan. Nola borrokatu sega baten aurka? Nola egin zezakeen eraso sega batek? Areago, jakingo ote zuen ezezagun hark sega erabiltzen? Ez seguruenik. Baina segaren aho metalezko luze, oker eta zorrotzak ez zituen lasai uzten. Ezezaguna beti urdurigarri.

Burusoila hankak tenkatzen ari zela konturatu zen Bilbo. Bestela bezala egin zuen lapurrak, oharkabean pasatzeko asmoz. Bilbok ez ikusiarena egin zuen, baina erasorako prestatu zen. Burusoilak jauzi egin zuen.

Eta Bilbok hanka sartu.

Bere aurka etorriko zela pentsatu zuen. Lapurra uste baino hobea zen, ordea. Bidean keinu engainagarri bat egin ondoren, burusoila di-da alboratu zen, eraso amaitu gabe. Bilboren arreta desbideratu zuen horrek, emakumeari Xurirengana jotzeko astia emateko bezainbeste.

Putza.

Emakumeak, taldeko buruak, leptok heldu zion Xuriri.

—Eta orain zer, e, segalari? –bota zion, barrez—. Orain zer?

—Kontuz –esan zion Bilbok—. Kontuz.

—Dagoeneko berandu, segalari. Nik agintzen dut orain.

—Zurekin ari nintzen.

Emakumeak barre egin zuen.

—Nirekin?

Xuriren arnasa bortizten eta bizkortzen ari zen. Hasieran, jakina, beldurragatik izango zela pentsatu zuten lau lapurrek. Xuriren begietan, ordea, ez zen izurik nabaritzen, animalia-amorrua baizik. Arnasa gero eta azkarragoa zuen. Hegazti batena zirudien, mutiko batena baino gehiago. Tapa-tapa-tapa-tapa. Begiak erabat eta bat-batean belztu zitzaizkion gazteari. Marmar hotsa ateratzen hasi zen Xuxiren eztarritik. Txakur sumindua zirudien. Basapiztia ernegatua.

—Ostia puta, mutiko hori... –esan zuen erraldoiak—. Begiak belztu egin zaizkiok. Belztu! Kumea duk. Kabroia alaena. Mutiko hori piztia duk! Piztia! Kontuz!

Beranduegi.

Pentsamendu arin batek hartzen duen denboraren erdian biratu zen Xuri, indar eta bortizkeria ikaragarri biratu ere. Emakumeak ez zuen zirkinik ere egi-teko denborarik izan. Begiak izuaren izuz zabaltzeko baino ez. Xurik salto egin zuen haren eztarrirantz, eta orro espantagarri bat igorri orduko zeharkatu zion hagina. Oso-osorik. Odol turrusta ikaragarria atera zen.

Senez, Xuri gainetik kentzen saiatu zen emakumea. Gorri kolorea hartu zuen guztiak. Lapurra lurre-

ra erori, eta eztarria estaltzen ahalegindu zen esku batez, begien argia beldur bihurturik. Eta argia itzaltzen ari zen ziztuan, baina ez beldurra. Jario gorria haziz zihoan, ez zen eteten. Emakumearen gorputza dardarka hasi zen.

Sortutako nahasmena aprobetxatu zuen Bilbok. Segaren atzealdearekin, belaunean jo zuen burusoila. Krak hotsak, eta berehalako tolesturak, garbi utzi zuten: hautsita. Hura ez zen mugituko tarte eder batean.

Bi geratzen ziren. Ikara antzematen zitzaien begiradan, baina argi zegoen, hala ere, gorriak ikustera eginak zeudela. Ehiztariak, ordura arte geldi, aizto luze bat altxatu, eta Bilbori eraso egiten asmatu zuen. Nolanahi ere, bere odoletan itotzen ari zen lagunaren gargara-hotsak arreta galarazi zion une batez. Erraza izan zen Bilborentzat. Makurtu, sega jaitsi, eta mugimendu bizi batez oin bat moztu zion garbi-garbi, orkatilatik behera.

—Xuri, geldi! —oihukatu zion Bilbok, erraldoiaren gainera zihoala ikusita—. Xuri! Geldi hortxe!

Gizontzarra korrika abiatu zen orduan, baina ez aurrerantz, beren aurka, basoan barrenerantz baizik. Abiadura marka guztiak hautsita zihoan, buztana hankapean. Ez zitzaion trakestasun zantzurik geratzen.

Emakumearengana hurbildu zen Bilbo. Odoletan erdi itoa zen jada. Kolpe bortitz batez bularraldea zeharkatu zion segarekin. Gero, suak utzitako txingarretara hurreratu eta, kontu handiz, mutur bat artean gori zeukan adar lodi bat hartu zuen. Ehiztariarengana hurbildu zen. Oinari heltzen zion gizonak, garra-sika, barkatuka eta erreguka.

—Bizirik jarraitu nahi baduzu –esan zion Bilbok–, isildu eta utzi zauria kauterizatzen.

—Bilbo –deitu zion Xurik. Gazteak arnasa azkartua zeukan artean, baina begiek gizakiena ematen zuten atzera–. Nik egingo dut. Horrelakoetara ere ohitu beharko dut, ezta?

—Tori. Hartu. Erre zauria eta goazen hemendik, lehenbailehen.

—Gehiago etorriko direla uste al duzu? –galdetu zion Xurik.

—Ez naiz fidatzen.

Xurik zauria erre zionean, ehiztariak konortea galdu zuen. Haren alboan, apurtutako belaunari helitzen zion burusoilak, begira-begira, baina txintik aterra gabe.

—Azkar –presatu zuen Bilbok gaztea–. Goazen hemendik.

Xurik irribarre txiki bat egin zuen.

—Bilbo, barrabilak izoztuko zaizkizu horrela. Biluzik joan nahi duzu, edo zer?

Barre egin, jantzi, traste guztiak hartu, eta handik alde egin zuten, pauso arinean.

—Barkatu, Bilbo –eskatu zion Xurik, handik urrundu bezain laster–. Barkatu.

—Lasai.

—Ezin izan dut kontrolatu. Ezin izan dut!

—Lasai. Ikasiko duzu. Lortuko dugu.

—Ziur al zaude?

—Bai.

—Ziur?

—Ziur.



—Eta egunen batean normala izango naiz?

—Normala? Hemen? –Bilbok karkara handi bat egin zuen-. Zertarako?



II

Jakinduriaren sua



HONDAMENDIAREN ONDOREN, inoiz baino zailagoa izan zen eguraldia iragarri ahal izatea. Malguki ero baten moduan luzatzen edo uzkurtzen ziren urtaroak. Urte hartan, ordea, eta berezko nahaspila meteorologikoa kontuan hartuta ere, neguak ezustean harrapatu zituen guztiak: ezkorrenek berek uste baino askoz lehenago eta ahaltsuago iritsi zen hotza. Elur- eta izotz-olatuak mendiak eta bailarak hartu zituzten mendean, eta zuriak dena estali zuen: zelaiak, teilatuak eta bihoztzak. Gauak ere, beltzak izatetik grisak izatera igaro ziren, elurrak islatutako argiak elikaturik.

—Neguak ez du amaitu nahi —esan zuen Xurik.

Ozen hitz egiten zuen, elur-ekaitzak gogor jotzen baitzuen. Bilbo eta gaztea bidean ziren, Gipuzkoa eta Bizkaia zirenekoen arteko mugaren punturen batean. Ez zen erraza zehaztea non, behe-laino trinkoak gehiena estaltzen baitzuen.

—Otsoak eta katu basatiak gure moduan ibiliko dira —jarraitu zuen gazteak—: goseak amorratzen. Gu-

txien espero dugunean, aurka etorriko zaizkigu haiek ere. Noiz arte iraungo du hotzak?

Haize bortitza eta oldarkorra zebilen. Aurpegi ia osoa zapi lodi banaz estalita zeramaten, eta begiak bakarrik ikusten zitzaizkien.

—Eguraldia ere zoratu egin zaigu –esan zuen Bilbok—. Auskalo zer etorriko zaigun bihar!

—Atzo esan zenidan laster egingo genuela lo benetako ohe batean. Hori, behintzat, beteko den itxaropena daukat.

Bilboren begiek irribarre egin zuten.

—Hala espero dut. Gutxi falta da iristeko.

—Baina nora goaz, zehatz-mehatz? –galdetu zuen Xurik.

—Dorretoki izeneko herrixka batera.

—Dorretoki. Dorreren bat dauka?

—Dorre altu bat. Dorre Zuria esaten diote.

—Garai Zaharretakoa, noski.

—Ez.

—Ez?

—Duela hogeit hamar urte inguru, Hondamendia etorri eta handik gutxira, ezin konta ahala erlijio txiki sortu ziren. Sektak, taldeak, fedea. Era guztietakoak.

—Zer zerikusi du horrek dorrearekin?

—Egun batetik bestera, goitik behera aldatu zitzaigun bizimodua. Guztiok bilatu genituen euskariak, ilunabar zail hartan. Edonolakoak. Betidanik gertatu izan zen moduan, askok erlijioan aurkitu zuten babesa. Talde bakoitzak berea sortu edo moldatu zuen, ia herri adina fede zegoela esango nuke.

—Dorretokin ere bai –iruditu zitzaion Xuriri.

—Durango herria zegoeneko hondakinen alboan, sekta horietariko bat sortu zen. Berezia. Zibilizazioaren altxorra gorde nahi zutela aldarrikatzen zuten. Eta dorre altu bat eraikitzen hasi ziren horretarako.

—Zibilizazioaren altxorra? –galdetu zuen Xurik.

—Liburuak.

—Liburuak?

—Liburuak. Paperezko liburuak.

—Paperezkoak!

—Bitxia, ezta?

—Eta zer demontretarako nahi zituzten paperezko liburuak?

—Jakinduria gordetzeko. Ez ahazteko. Beharbada, nostalgiari amore emateko baino ez.

—Ez dut ulertzen. Dorre bat eraiki al zuten horretarako?

—Dorre Zuria.

—Ez al zeukaten zurea bezalako agenda elektronikorik? Ez al zegoen ordenagailurik?

—Noiztik ez duzu ikusi ordenagailu bat mar-txan?

Xurik kalkulatu egin zuen.

—Bi urte izango dira. Ez, hiru!

—Eta ba al zebilen?

—Egia esan, ez. Baina elektrizitatea bakarrik behar zuen. Egunen batean beste zibilizazio bat gartzen bada, elektrizitatea sartu eta informazio guztia atera besterik ez da egin behar. Dorre oso bat? Nahikoa gailu txiki horietako batekin!

—Paperezko liburuek ez dute energiarik behar –gogorarazi zion Bilbok.

—Baina horrelako zenbat eraman ditzakezu gainean? Bost? Hamar? Eta zenbat liburu dituzu zure agenda horretan? Bost mila, hamar mila?

—Hogeita hamar mila.

—Ikusten? Hogeita hamar mila liburu sakelan. Alde ederra!

—Baina pilak behar ditut etengabe. Eta pilak oso garestiak dira.

Haizea pixka bat baretu zen arren, Xurik bere jaka mardularen lepoa igo zuen. Hotz handia zen, eta hitz egitean lurrun hodeitxoak igortzen zituzten ahotik.

—Zertara goaz Dorretokira? –galdetu zuen gazteak—. Herri txikia bada, han ez da pilarik izango.

—Dorrea ikusi nahi dut.

—Lagunak ginela esan zenidan.

Bilbok besoak gurutzatu zituen, kexu baten hasiera abiatzeko. Berehala ohartu zen, ordea, ez zuela merezi. Xuriren sena gero eta zorrotzagoa zen. Zertarako ezkutatu?

—Norbait ikusi nahi dut –aitortu zion Bilbok.

—Norbait. Lagunen bat?

—Lagun bat, bai.

—Emakumea?

—Zergatik galdetzen duzu tonu horretan?

—Hargatik.

—Ez da zuk pentsatzen duzuna. Aspaldian, emakume horrek Ekaitz anaiari eta bioi lagundu zigun. Irakurtzen irakatsi zidan.

—Hara. Zure anaiak ez al zekien?

—Anaiak gauza asko zekizkien. Besteak beste, irakurtzen. Baina Ekaitz gizon praktikoa zen. Irakurtzeari



zegokionez, emakume hark azkarrago eta hobeto irakatsiko zidala iruditu zitzaion. Horregatik eraman ninduen harengana.

—Eta asmatu?

—Asmatu.

Elur malutak ugaritu egin ziren bat-batean, eta haize zirimolek marrazki zuri biziak osatu zituzten zeruan. Aireko espiritu ikusezinak dantza alai eta burugabe batean ari zirela ematen zuen.

—Udaberria iristeko irrikatan nago —esan zuen Xurik—, baina aitortu behar dut elurra ederra dela batzuetan. Ikusten al dituzu airean egiten dituen forma horiek?

—Bai.

Xurik arnasa hartu zuen.

—Usaina ere ederra dute eta. Zoragarria da. Hala eta guztiz, oraintxe nahiago nuke aterpe batean egongo bagina.

—Baina gaur ez dugu aterperik —Bilbok harriduraz aztertu zuen ingurua—. Eta batere zuhaitzik ez dago gainera, haizeaz pixka bat babesteko.

—Egia da. Hemen ez dago basorik?

—Azkenekoz etorri nintzenean, ez zen baso handirik geratzen inguru hauetan, baina lekua ez zegoen inola ere hain soildua. Bitxia.

—Begira han, eta han —seinalatu zion Xurik—. Enbor moztuen aztarnak ikusten dira.

—Oso gutxi falta da Dorretokira iristeko. Beharbada, bertakoek moztuko zituzten.

—Ondo pentsatuta, ez da harritzekoa —pentsatu zuen Xurik—. Hotz honekin, sua beharko zuten berotzeko!

—Litekeena da.

Isilean egin zuten hurrengo ordua. Haizea baretu egin zen, eta aurpegiko zapiak kendu zituzten. Erosoa-go sentitu ziren.

—Xuri, begira hara –eskatu zion Bilbok–. Iristen ari gara.

—Etxeak. Etxeak!

—Begiratu hobeto.

Xurik irribarre egin zuen. Herrixkaren bazter batean, muino baten magalean, sekulako dorrea ikusten zen. Oinarria oso zabala zeukan, baina, gorantz zihoan heinean, mehetu egiten zen. Kolore zuri-zuria zeukan. Horregatik ez zen erraza lehen begi-kolpean antzematea. Dorrearen zuria, atzeko zelaien zuriaren kontra. Elurrak berak dorrearen erraiak kamuflatu eta babestu nahiko balitu bezala. Edo, akaso, gutxietsi.

—Dorretoki, ezta? –galdetu zuen Xurik.

—Argi eta garbi.

—Dorrea zuria da. Baina zuri distiratsua dirudi. Elurra baino distiratsuagoa.

—Jakinduriaren itsasargia bihurtu nahi zuten lekua –azaldu zion Bilbok–. Egunen batean, zibilizazio berri bat sortzean, hemen izateko portu nagusia. Hemen abiatzeko argi berria. Jakinduriaren argia edo.

—Zibilizazio berri bat sortu arte... –harritu zen Xuri–. Zenbat urte egon nahi dute, ba, hortxe, horma artean ezkutaturik?

—Askorentzat, jomuga bat izatea oso lagungarria da. Horma artean egon behar badute ere –adierazi zuen Bilbok.

—Horma artean. Alde, alde! Uf. Nik nahiago mendiak izatea inguruan, eta haizea aurpegian. Bide bat. Elurra eta hotza eta gosea bada ere –Xurik irribarre atsegina egin zion Bilbori–. Eta lagun bat alboan.

—Ez dirudi aukera txarra.

—Ez. Aizu, Bilbo, nola du izena emakume horrek?

—Sofia.

—Sofia.

—*Jakinduria* esan nahi du, greziera zaharrean.

—Eta hor egongo al da, dorrean?

—Garai hartan dorrea zuen obsesio. Dorrea eta liburuak. Baina... auskalo. Zenbait pertsona aldatu egi-ten dira.

—Sofia?

—Laster jakingo dugu.

—Liburuak obsesio. Obsesioak txarrak direla esan didazu behin baino gehiagotan.

—Askotan hala da. Baina, batzuetan, hobe obsesio bat izatea, batere ez baino... Xuri, lurrera!

Oso azkar gertatu zen dena. Dorrean distira bizi bat ikusi zen. Ia aldi berean, eztanda bortitz eta azkar bat entzun zen bailaran. Bilbo eta Xuri lurrean ziren jada. Bilbok keinu labur bat egin zion Xuriri, eta harri multzo baten atzean ezkutatu ziren.

—Zer...? –hasi zen Xuri–. Zer izan da hori?

—Makurtu burua! –eskatu zion–. Horrela. Egon harrien atzean. Ez mugitu.

—Zer zen zarata hori? Trumoia zirudien...

—Tiro bat izan dela esango nuke.

Xurik irribarre alaia egin zuen.

—Tiro bat? Benetan? Tiro bat! Ez nuen inoiz tiro-rik entzun!

—Hobeto zuretzat –azaldu zion Bilbok–. Ez dut uste guri bota digutenik, baina jaitsi burua. Xuri! Behera!

—Tiro bat –Xurik barrez jarraitzen zuen–. Ez nuen inoiz pentsatu tiro bat entzungo nuenik. Ez al ziren ba bala guztiak Hondamendi Garaian agortu?

—Agerikoa denez, ez guztiak. Zenbaitek gorde egingo zituzten. Edo galdu, eta gero aurkitu. Edo batek daki. Edonola ere, ez dut uste asko geratuko direnik.

Berriro entzun zen aurrekoaren antzeko eztanda bat.

—Beste tiro bat! –poztu zen Xuri.

—Makurtu, Xuri. Makurtu! Egon geldi.

Hamar minutuz egon ziren harrien atzean. Ez zen entzun beste tirorik.

—Goazen ikustera! –proposatu zion Xurik, ezjakinaren ardurarik ezaz.

—Lehenbizi, garbitu arropa –esan zion Bilbok.

Lurrean itsatsitako antzigarra eta elurra astindu zituzten arropetatik. Gero, herrirantz abiatu ziren, poliki. Xurik aurrera begiratzen zuen, jakin-minez, leku ezezagun batera iristen zen bakoitzean bezala. Beste herri bat. Lagunak egiteko aukera. Istorio misterioitsuak zain, sutondoetan eta tabernetan. Eta oraingoan, hura gutxi balitz bezala, dorre zuri altu eta distiratsu bat. Pozik sentitzen zen.

—Jo ezkerretara –esan zion Bilbok–. Ez gara zuzenean joango.

—Badaezpada?

—Ez naiz fidatzen. Ez dakigu nori egin dioten tiro.  
Xurik berriro begiratu zuen dorre alderantz.

—Herri askotan dagoen eliza abandonatu horietariko bat ematen du –esan zuen gazteak–. Hain dotorea. Hain isila.

—Neurri handi batean, horixe da: eliza bat. Eliza hil bat. Irrazionala eta saihestezina. Eta jainko guztiak hil zaizkiola esango nuke. Xuri. Xuri! Etorri. Jarri alboan eta adi egon.



HERRIXKA HARTAKO ETXE GEHIENAK eraikin zaharren hondakinez osatuta zeuden. Baxuak ziren, sinpleak eta kolorgeak. Asko elkarren kontra estutuak zeuden, eta lekuak nekropolia zirudien, herri bizia baino gehiago.

—Etxe hauek oskolak ematen dute –esan zuen Xurik—. Edonola pilaturiko oskol hutsak.

—Hala da. Baina gutxieneko babesa dira, behintzat.

Bilbok eta Xurik kontu handiz egin zuten aurrera, etxetxoan artean. Berehala aurkitu zuten jende multzo bat, zortzi-hamar lagunez osatua. Bi emakume eta gizon bat negarrez ari ziren, eta taldeko beste batzuek begiak sutan zituzten. Hirutatik bitan, dorre zuri aldera begiratzen zuten, amorrutan. Hala ere, etxeetako izkinen atzean gorderik egoten saiatzen ari ziren nabarmen. Tiroen beldur, ziur asko.

Bazter batean, agure bat zegoen eserita. Harengana jo zuen Bilbok.

—Egun on, gizona. Zer gertatzen da hemen? –galdetu zion Bilbok.

Agureak mesfidantzaz eta harriduraz begiratu zien. Ulertzekoa, Xuri eta Bilbo ez baitziren hangoak, eta haietako batek sega handi bat eta makila bat baitzeramatzan bizkarrean, gainera. Bidaiariak edo mer-tzenarioak. Edozein modutan, ilargi-joak eta senga-beak. Eroak. Agureak, ordea, ezin izan zuen ezkutatu begietatik ihes egin zion argi-printza bat. Inbidia?

—Ba al duzue likore pixka bat? –galdetu zien agureak, ipurterre eta lakar, baina, aldi berean, bitxiki epel.

—Ez –erantzun zion Bilbok.

—Pena.

Agureak adi-adi aztertu zituen iritsi berriak. Xurik eta Bilbok beste hainbeste egin zuten harekin, noski. Agurearen begirada, mehatxuzkoa baino gehiago, infantila iruditu zitzaien. Gizon hark ez zuen lapurtzeko ezer bilatzen, ametsen bat eratzeko aitzakia bat baizik.

—Zertara etorri zarete? –galdetu zien agureak.

—Paseko hegaztiak gara –erantzun zion Bilbok, azalpena luzatzeko asmorik gabe.

Agureak irribarre egin zuen, erdizka bakarrik sinesten zuela garbi utzita. Jende multzoa seinalatu zuen, eta gero bere burua.

—Ondo egiten duzue. Hemen ez dago ezer. Ez dago merezi duen ezer. Egin beharrekoa egin, eta jarrai ezazue aurrera.

Bilbok plastiko-zorro bat atera zuen motxilatik.



—Tori, gizona –eskaini zion agureari–. Goizean harrapatutako untxi bat.

Agureak esku bat luzatu zuen, patxadaz baina desioz. Indarrez heldu zion zorroari.

—Zer izan da lehen entzun diren eztanda horiek? –segitu zuen Bilbok–. Tiroak?

—Tiroak.

—Nolatan? Urteak dira tirorik entzuten ez nuela.

—Nolatan? Mundu honek ez du buru-buztanik. Eta amore eman du. Errenditu egin da! Zeharo pitzaturiko jainko baten lana baizik ezin da izan hau guztia. Inkoherentea izango ez da ba!

—Dorretik zetoze la iruditu zaigu –jarraitu zuen Bilbok, tiroen hariari eutsi nahian–. Zer gertatu da, gizona?

Agureak irribarre egin zuen, baina bihotzeko hegoak erorita bezala. Oso goibel.

—Andere. Hori gertatzen da –maiseatu zuen zaharrak–. Hotzez hil nahi gaitu.

—Nor da Andere?

—Neskato bat. Ero baten alaba. Eta alaba ere, noski, eroa.

—Noren alaba?

—Zer axola du horrek?

—Noren alaba?

—Sofia izeneko emakume batena.

—Sofia! –egin zuen salto Bilbok, poza eta kezka ezin ezkutatuta–. Sofia dorrean al dago oraindik?

—Sofia ezagutzen al zenuen? –galdetu zuen agureak, bekainak altxatuta.

—Laguna nuen.

Zaharraren begiak berriro piztu ziren une batez:

—Laguna. Ondo. Ba, Sofia gu baino hobeto dago orain –azaldu zion agureak–. Duela hilabete inguru hil zen. Gaixo ibili zen, ia negu hasieratik. Duela lauzpabost aste, indarrak amaitu zitzaizkion.

—Eta nor da orain dorreko arduraduna?

—Arduraduna? Hor ez da Andere beste inor geratzen.

—Sofiaren alaba. Eta besteak?

—Ez dago besterik. Batzuek burutik eginda amaitu zuten. Erabat, esan nahi dut, hasieratik bertatik ez baitzeuden oso sano. Beste batzuk hil egin ziren. Edo nekatu. Itxarroteaz nekatu. Liburuak zaintzeaz. Liburuak! Ba al dakizue zer diren liburuak?

—Badakigu.

—Absurdoa zen –segitu zuen agureak–. Absurdoa! Liburuak zaintzen, ene! Liburuak... Zibilizazioaren harribitxiak gorde nahi omen zituzten –karkara ozena egin zuen gizonak–. Zibilizazioaren harribitxiak! Hori ere entzun egin behar! Begiratu nora ekarri gintuen zibilizazio horrek. Hori gorde nahi al zuten? Etsipena? Gainbehera? Ausardiarik eza? Harribitxiak. To. Dorreko zaindaria. Benetan komikoa. Azkenerako, urteen joanean, gehiago totolotu ziren. Eta ba al dakizu zer esaten zuten dorreko txepel horiek? Jakinduria babestu behar zutela. Gugandik. Hala moduzkoongandik edo. Guk barre egiten genuen. Egun guztiak aldrebeskeria hartara emanak! Baina ez ziguten kalterik egiten, eta ez zitzaigun txakur txiki bat inporta. Bizitza beste nonbait zegoen. Deman, abenturan, adorean! Hala uste izan genuen. Gero, haiek bezain oker genbiltzala ohar-

tu ginen: ez zegoen bizitzarik. Inon ez! Aaai. Liburuetan? Jan zitzatela liburuak!

—Eta nekatu egin ziren –egin zuen berriro tira Bilbok.

—Nekatu egin ziren. Geratzen ziren bakanak, azkenerako, obarioetaraino zeuden. Obarioetaraino diot, ze bi emakume zirela oroitzen dut. Alde egin zuten. Sofia bakarrik geratu zen. Sofia eta haren alaba, Andere.

—Zenbat urte ditu Anderek?

—Neskatoa da. Hamabi? Hamalau, gehienez ere. Bilbok isilean begiratu zuen dorre alderantz.

—Eta tiroak? Zer izan dira lehen entzun diren tiro horiek?

—Andere, ba. Ama hil zitzaionean, lekua babesteko eskatu omen zion.

—Eta orduan hotza etorri zen –ondorioztatu zuen Bilbok, guztia gero eta argiago ikusita.

—Hotza etorri zen, eta geratu. Eta ez du joan nahi. Hotza barruraino sartu zaigu, eta erretzeko guztia erre dugu dagoeneko. Zuhaitzak, traste zahar guztiak –begirada ilundu egin zitzaion—. Eta kemena. Herriko haurrak hotz dira. Gurasoak hotz dira.

—Liburuak erregai ona dira –esan zuen Bilbok.

—Horixe. Erretzeko guztia amaitu zenean hasi ziren arazoak. Liburu batzuk behar genituela esan zioten Andereri. Ehunka batzuk baino ez. Baina neska toak eskopeta bat atera zuen, auskalo nondik, eta tiroka hasi zen. Dorrea ezin dela ukitu oihukatu zigun. Eta hor jarraitzen du, irten gabe eta inori sar-

tzen utzi gabe –gizonaren begietan txinparta bat ikusi zen hirugarrenez–. Eroa.

—Zer jaten du, ordea? –galdetu zion Bilbok–. Ezin du luze iraun horrela.

—Ez dakit zer jaten duen, baina jendeari ahotik muskerrak eta sugeak ateratzen hasi zaizkio...–agureak irribarre maltzurra egin zuen–. Edan txarreko mozkor bat baino haserreago daude.

—Zu ez?

—Haserretu egin beharko nuke. Baina hain ke-men gutxi ikusi dut azken urteotan...

—Andere ulertzen duzu.

—Ulertu? –Agureak bekainak jaso zituen–. Ez. Ez! Ezta onartu ere. Baina ausarta da.

—Eromena aipatu duzu behin baino gehiagotan.

—Ausardia eromena da. Baina eromen guztietatik, jadanik miretsi dezakedan gutxienetarikoa.

—Zer gertatuko da? –galdetu zion Bilbok.

—Hotzak jendearen pazientzia eta indarra akabatu ditu. Milaka liburu dago hor. Tonaka paper. Jendea edozertarako prest ikusten dut, aspaldian ez bezala. Tonaka paper. Zertarako? Hori galdetuko dute. Liburu horiek hilda daude. Jendea ez. Edo.

Agurea isildu egin zen, eta gehiago hitz egiteko gogorik ez zuela garbi utzi zuen. Hura ikusita, agurea agurtu eta aurrera jarraitu zuten Bilbok eta Xurik.

Bi gizon aurrean jarri zitzaizkien. Janzkera eta gorpuzkeragatik, nekazariak. Erregua zuten begiradan.

—Etorri gurekin, mesedez –esan zieten–. Alkateak zuekin hitz egin nahi du.

BILBO ETA XURI BI NEKAZARIEN ATZETIK JOAN ZIREN. Etxe okerrez osaturiko gune batera eraman zituzten. Erdian zegoen eraikinean sartu ziren bi gizonak.

—Etorri gurekin, mesedez —errepikatu zieten.

Bilbok lasai egoteko adierazi zion Xuriri, ez baitzitzaion iruditu egoera arriskutsua zenik. Beldur ziren gizon haiek, eta odola irakiten zeukaten. Baina ez beraiengatik. Edonola ere, Bilbok, disimuluan, segari heldu zion esku batez. Hobe, noski, *badaezpada* bat sobran izatea, *ez nuen uste* bat faltan baino.

Gela triangeluar, itzali eta ia huts batera iritsi ziren. Adobezko hormak zituen, karez zurituak, lau aulki zahar, bi koadro ilun hormetan, eta gizon bat eta emakume bat esperoan.

—Alkatea eta haren emaztea —azaldu zien nekazarietako batek. Gero, haraino eraman zituzten bi gizonak gelatik irten ziren.

Alkatea gizon txikia eta fina zen, eta, itxuraz, zaila egiten zitzaion geldirik egotea. Atzera, aurrera, eskua altxatu, eskua albora, begiak lurrerantz, gorantz,

ahots dudatsua. Eltxo urduri baten tankera hartu zion Xurik. Alkatearen emazteak, berriz, armiarma behatzaile baten antza zeukala iruditu zitzaion. Itxa-roten, ataizean. Sarea hedatu nahian eta noiz oldartuko zain.

Bi aulkitan esertzeko eskaintza egin zien alkateak, keinu batez. Bilbo eta Xuri ez ziren mugitu. Eltxo-alkateak begiak erdi itxi zituen, eta etorri berriei begira egon zen.

—Borrokalaria al zara? —galdetu zion Bilbori, arrapaladan.

—Mertzenarioa da —jaurti zuen armiarma-emazteak, tu egiten bezala—. Bistakoa da.

Bilbok ez zien erantzun. Isilik geratu zen. Alkateak pauso bat atzera egin zuen, beste bat aurrera, eta jarraitu egin zuen:

—Seme-alabak hotzez hiltzear ditugu jadanik. Lagundu egin behar gaituzu.

—Oso gutxi egin dezaket hotzaren aurka —azaldu zien Bilbok.

—Gu nekazariak gara, artzainak, artisauak. Langile xumeak —segitu zuen alkateak. Besoak gurutzatu zituen, eta berehala zabaldu zituen atzera—. Zure laguntza behar dugu.

—Zer nahi duzue?

—Alkohol pixka bat daukagu —esan zuen alkateak, Bilboren galdera zintzilik utzita. Begiak oso azkar kliskatu zituen—. Barazkiak ditugu, gatza, emakumeren bat...

Alkatearen emazteak, azkena entzutean, hasperen sudurkari moduko bat egin zuen.

—Ez duzue erantzun. Zer nahi duzue? —errepikatu zuen Bilbok.

—Dorre Zuria liburuz beteta dago. Paperezko liburuz. Andere izeneko neska bat dago bertan. Armarren bat dauka.

—Eta tiroka aritu da.

—Hori da. Hori da. Liburu horiek behar ditugu, eta burugabe horrek ez digu uzten. Zure lagunt... —Beste tiro bat entzun zen orduan kanpoan—. Meka-benla... Hau beltza! Andere madarikatua!

Eltxo-alkateak ukabilak indarrez itxi eta airean altxatu zituen.

—Mekabenka bai —leporatu zion armiarma-emazteak—, baina gero ezertarako potrorik ez. Zerbait egin behar da, berehala!

Alkateari kexu gutural moduko bat atera zitzaion. Gelako ateraino joan, eta zabaldu egin zuen.

—Zer izan da? —oihukatu zuen—. Zer izan da orain?

Hitz batetik bestera, emakume bat sartu zen gela barrura, lasterka. Garrasi batzuk entzun ziren kalean.

—Lukeni eman dio! —oihukatu zuen sartutako emakumeak—. Eman egin dio!

Emakumeak kanpora irteteko erregutu zion alkateari. Gizona Bilbo eta Xuriri zuzendu zitzaien:

—Barkatu.

Gelatik atera zen. Emaztea segika joan zitzaionean, Bilbo eta Xuri haien atzetik abiatu ziren.

Kalean, gizon beltzaran batek lepoan hartuta zerraman beste gizon bat. Alkatea eta emaztea hurbildu egin zitzaizkien, kezkatu.

—Luken –esan zion eltxo-alkateak goian zihoanari—. Ondo al hago?

—Neskato alu horrek eman egin zidak! –esan zuen gizonak, txundiduraz eta minez. Ezkerreko hanka gorritz blaitzen ari zitzaion—. Eman egin zidak!

—Zer ari zineten? –galdetu zion armiarma-emazteak.

—Sartu egin nahi geninan.

—Esan dizuet pixka batez itxaroteko –esan zion alkateak—. Bihar arte egoteko. Esan dizuet!

—Urde hori hil egingo diat! –jaurti zuen zaurituak—. Putakumea halakoa.

Beste emakume bat hurbildu zen multzora, argala, aurpegia elur berria bezain zurbila. Soineko beltz luze bat zeraman jantzita. Zaurituarengana zihoan zuzenean, baina Xuriren albotik igarotzean, lurrean itsatsita bezala geratu zen. Gazteari begira egon zen segundo batzuetan. Hasieran, liluraz edo. Berehala, jakin-minez. Emakumeak Bilboren begirada aurkitu zuen orduan.

Xurik urduritasunez hartu zituen begirada haiek guztiak. Emakumea begira geratu zitzaion lehenbizikoan, *ikusi* egin zuela iruditu zitzaion. Ez azaleko Xuri ikusi, barnekoa baizik. Mozorropean zena. Gizakume normala zirudiena baino ez zena. Edonola ere, ez zuen izu alerik sumatu emakumearen begietan. Gero, Bilboren eta emakumearen arteko begiradari erreparatu zion Xurik. Ez zekien zer adierazi zioten elkarri, emakumeak ez zuen ezer esan, behintzat. Irribarre labur bat baino ez zuen egin. Zer arraio zen emakume



hura? Hain zurbila, hain desberdina... Bera bezalako mutaturen bat, agian?

Une hartatik aurrera, emakumeak ez zion jaramon gehiago egin. Soinekoa pixka bat jaso zuen, hobeto ibiltzeko, eta gizon zaurituarengana zuzendu zuen arreta:

—Eraman ezazu nire etxera –eskatu zion gizon beltzaranari. Edo, eskatu baino gehiago, agindu-. Etorri nirekin.

Emakumeak alde egin zuen, eta gizon beltzarana atzetik joan zitzaion, zauritua gainean. Haiek urrundu arte, ez zuen inork tutik ere esan.

—Nor zen? –galdetu zuen Bilbok.

—Emakumea? Iurre, gure sendagilea –azaldu zien eltxo-alkateak. Ezpainak estutu zituen eta ahoa okertu. Bilboren begiradaren bila joan zen gizona orduan. Isilka-misilka jarraitu zuen—: Gau bat emakume batekin, bi astetarako jana eta bi botila patxaran.

—Patxarana?

—Beno, patxaranaren antza daukan likorea.

Xuri sor eta lor gelditu zen. Emakumea eta jana eskaintzea... Tira. Baina likorea? Likorearen prezioa oso altua zen merkatuan. Bi botila sekulako ordain-saria zen!

—Liburuengatik –zehaztu nahi izan zuen Bilbok.

—Liburuengatik –errepikatu zuen alkateak.

—Liburuengatik bakarrik.

—Zer esan nahi duzu?

—Andere niretzat nahi dut –azaldu zion Bilbok.

Alkateak lurrerantz begiratu zuen.

—Herrikoek hil egin nahiko dute.

—Andere niretzat da —errepikatu zuen Bilbok.

Armiarma-emazteak mespretxuz begiratu zion:

—Neskatoa da —esan zion emakumeak. Bilbok erantzuten ez zuela ikusita, jarraitu egin zuen—: Ea. Hala biz. Baina biharko egin beharko duzu. Ezin du-  
gu gehiago itxaron. Biharko ez bada, ez dizugu ezer emango.

DORRE ZURIA HERRIXKAREN BAZTERREAN ZEGOEN, gain baitean. Horregatik, erraza zen handik hurbiltzen ziren guztiak ikustea. Edo tirokatzea. Bilbok eta Xurik izkina batetik aztertu zuten lekua. Landare igokari batzuk dorrea eskalatzen hasita zeuden, eta antzeman zitekeen, elur gutxiago zegoen puntuetan, azpialde osoa goroldio beltz batez hartua zegoela. Aihen-belarek dorrearen ile beltzarana ematen zuten.

—Aizu, Bilbo, zergatik dira orain landare gehienak beltzak? —galdetu zion Xurik—. Lehen, Garai Zaharretan, berdeak zirela esan zidan aitak.

—Egia da. Nik zelai berdeak oroitzen ditut.

—Orain oso berde gutxi geratzen da. Zerua beltza, landareak beltzak. Beltza. Zergatik? Zure liburu horiek guztiek argitzen al dute hori?

—Ideia solteak baino ez ditut irakurri. Zenbaitek diotenez, gerta liteke zure berezitasunarekin zerikusia izatea.

—Gizaki itxurako piztia izatea, esan nahi duzu?

—Zenbait teoriak diotenez, espezieen eboluzioa, oro har, nahiko lineala da. Eta oso motela. Mutazio txikiak izaten dira, eta luzaroan ez da ia aldaketarik egoten. Apurka-apurka baino ez da antzematen aldea. Baina, halako batean, ezusteko bortitzen bat gerta liteke: hondamendiren bat, klima-aldaketa gogorra, meteorito bat erortzen da... Auskalo. Bestelako zer-bait. Baldintzak zeharo aldatzen dira, eta gure barruak, eta *gure* horretan izaki bizidun guztiak sartzen ditut, gure barruak erabateko jauzi ebolutiboa egiten du. Sekulako metamorfosia gerta daiteke orduan.

—Hori gertatu zaie landareei?

—Landareek eguzki-izpiak jaten dituzte, modu simple batean esateko. Lehen, zergatik ziren berdeak gehienak? Berdea xurgatzen ez zuen pigmentu bat zutelako: klorofila.

—Eta berdea xurgatzen ez zuenez, hura zen ikusten zen kolorea. Ondo ari naiz?

—Hori da. Berdea ere xurgatzen zuen beste pigmentu bat egon balitz lehen, hostoa eraginkorragoa izango zen... eta beltza.

—Orduan galdera ez da zergatik diren beltzak orain, baizik eta zergatik ez ziren beltzak lehen!

—Oso ondo! –poztu zen Bilbo—. Landare beltzek, teorian, behintzat, hobeto aprobetxatzen dituzte eguzki-izpiak. Orain, beharbada, beharra handiagoa da. Edo latzagoa borroka. Eta landareek dena eman behar izaten dute. Beltza kolore iluna da, baina teoria horiek zuzenak badira, biziagoa ere bada. Indartsuagoa. Energia hobeto erabiltzen duelako. Garatu ere, askoz azkarrago garatzen dira landareak orain. Zuhaitzek,

adibidez, lehen, hamarkada bat baino gehiago behar zuten metro batzuk hazteko. Orain, berriz, urte gutxitan heltzen dira. Heldu, eta aurrekoei lekua kendu.

—Bitxia. Eta horrek nirekin zerikusia duela esan duzu. Ni zer naiz orduan, belar beltza?

—Landare beltzak jauzi ebolutiboa izango lirateke. Apurkako aurrerapen batetik saltozko beste batera igaro direnak. Eta zeu ere jauzi ebolutiboa izango zinateke. Ingurunea gogorragoa denez, izadiak gogorrago egin zaitu.

—Gogorragoa al naiz? Ziur?

—Neurri batean, behintzat, bai.

—Nik ez dizuet lekua kendu nahi...

—Ez da nahi izatea, Xuri.

Gaztearen ahotsa ilundu egin zen:

—Hala ere... Gizaki batetik piztia bat. A ze jauzia. Inork galdetu gabe. Eta zu, Bilbo? Zer zara zu?

—Ni?

—Zu ere gogorra zara. Suharri guztiak baino gogorragoa.

—Ni egoskorra baino ez naiz. Ez da gauza bera.

Haizearen aienea entzun zen, bihurria eta muga-gabea. Bilbok dorre aldera begiratu zuen.

—Beno, Xuri, besteren batean jarraituko dugu hizketaldia. Lanean hasteko ordua da. Itxaron hemen.

Dorrera hurbilduz joan zen Bilbo, erdi herrestan eta bistan geratu gabe. Edo ahal bezain gutxien, behintzat.

—Andere! –oihukatu zuen Bilbok, harri handi baten atzetik—. Andere!

—Alde hemendik! –entzun zen dorretik. Neskato izutu baten ahotsa zen.

- Zure ama ezagutzen nuen.
- Nik ere bai.
- Irakurtzen irakatsi zidan.
- Isiltasuna.
- Andere? –jarraitu zuen Bilbok—. Hor al zaude?  
Ez duzu erantzuten?
- Alde hemendik!
- Lehen tiroka aritu zara. Gizon bat, behintzat, jo duzu. Hanka galzorian du.
- Sentitzen dut, baina esan diet. Ez hurbiltzeko esan diet. Ni bakean uzteko. Leku honetan ez direla sartuko. Ez didate jaramonik egin.
- Ez duzu ihesbiderik, Andere.
- Ez dut ihes egin nahi. Hau da nire lekua.
- Lehenago edo geroago, balak amaituko zaizkizu. Edo lokartu egingo zara. Eta herriko jendea urak eta suak hartuta dago zurekin. Larrutu egingo zaituzte. Larrutu, Andere. Ulertu al didazu?
- Liburuak erre nahi dituzte!
- Eta?
- Ezin diet utzi.
- Zergatik?
- Hargatik.
- Eta batzuk bakarrik erretzen badituzte? Zuri gutxien gustatzen zaizkizunak. Goi sukaldaritzari buruzkoak, makramearen ingurukoak... Nik zer dakit ba! Urte askotan, behintzat, ez dira beharko. Edo, bestela, errepikatuta daudenak. Edo...
- Ez.
- Zergatik ez?

—Orain batzuk erretzen badituzte, gero gehiago eskatuko dituzte. Alde egin ezazu hortik. Alde!

—Hil egin behar duzu.

—Baita zuk ere.

—Ukaezina.

—Alde egin edo tiro egingo dut.

—Baina... –hasi zen Bilbo.

—Ez dut errepikatuko.

—Entzun, Andere...

Neskatoak tiro egin zuen. Xurik larriturik altxatu zuen burua bere ezkutalekutik.

—Bilbo! –oihukatu zuen gazteak.

—Behera, Xuri! –agindu zion Bilbok–. Behera!

—Eman egin dizu!

—Esan dizut –ohartarazi zion neskak–. Alde hortik edo beste bat botako dizut. Eta ez da hanketara joango. Zure lagunari berdin. Ospa!

Bilbo herrenka urrundu zen dorre ingurutik. Berehala azaldu zitzaion Xuri albora.

—Bilbo, ondo al zaude?

—Harrigarria da –esan zion Bilbok–. Edo izugarri trebea da tiro egiten, edo sekulako zortea dauka. Tiro garbia izan da. Berna zeharkatu dit, baina ez dut uste larria denik.

—Larria ez, baina mingarria bai.

—Lagundu iezadazu erdiguneko etxeetara hurbiltzen. Emakume sendagile horrek zauria garbitzen lagunduko dit. Xuri.

—Zer?

—Zer uste duzu? Zer iruditu zaizu?

—Andere?

—Zer iruditu zaizu?

—Egia esatea nahi al duzu?

—Jakina.

—Ba, zure antza hartzen diot.

—Nire antza?

—Ezin du irabazi.

—Nik ezin al dut irabazi?

—Zuk ez duzu hori kontuan hartzen. Edo ez funtsean.

—Hori da nigan ikusten duzuna? –esan zion Bilbok, karkara txiki bat eginda—. Ezin dudala irabazi?

—Beno, askotan entzun dizut, Bilbo: ezin du inork irabazi.

—Hori ere badugu. Hara, hara. Kontu handiagoz ibili beharko dut esaten dudanarekin. Baina ez duzu lehengo galdera erantzun: zer iruditzen zaizu Andere?

—Zerbait egitea gustatuko litzaidake. Ezin du inork irabazi, baina uste dut amets batzuek merezi dutela saiatzea.

—Batzuetan izutu egiten nauzu, Xuri. Deskuidatzen banaiz, kixote aterako zara. Eta ez dakit zer esango lidakeen Landerrek, zure aitak, hala balitz.